



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

TXOSTENA, LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZARENA, EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN LEGE- AURREPROIEKTUARI BURUZKOA

Bildutakoak

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kontseilukidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kontseilukidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Laburpena:

TOC

Lehiaren Euskal Kontseiluaren (aurrerantzean, LEK) Osoko Bilkurak, aurrez aipatutako pertsoez osatuak, honako hau erabaki zuen 2014ko maiatzaren 22an izandako bileran: Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektuari (aurrerantzean, EAPLA) buruzko txosten hau egitea.

I. AURREKARIAK

1. 2014ko apirilaren 11n, Lehiaren Euskal Agintaritza (LEA) honi jakinarazi zitzaion, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren bidez, EAPLaren gaineko alegazioak aurkezteko epea ireki zela eta interesdunei entzunaldia egiteko fasean zegoela.



II. LEGE-AURREPROIEKTUAREN EGITURA

2. EAPLak honako zati hauek ditu: ehun eta hogeita bat artikulua, sei titulutan banatuta, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

3. Atariko tituluak (Euskal Administrazio Publikoa) EAPLaren xedea, helburuak eta aplikazio-eremua ezartzen ditu, eta antolamendu instituzionalaren eduki subjektiboa finkatzen du.

4. I. tituluak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Instituzionala) gure autonomia-erkidegoko administrazio orokorraren eta instituzionalaren egitura eta antolaketa arautzen ditu, bai eta administrazioen arteko lankidetzak eta koordinazioa ere.

5. II. tituluak (Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren osaera eta haren koherentzia) sektore publikoko subjektu modura jarduteko printzipio orokor batzuk ezartzen ditu, bai eta erakunde berriak sortzeko edo lehendik daudenetan parte hartzeko printzipio batzuk ere. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Erakundearen Erregistroa sortzen du, eta han erregistratu behar dira erakunde horien bizitzako gorabehera nagusi guztiak.

6. III. tituluak (Euskal Administrazio Publikoaren funtzionamendua, herritarren zerbitzura egoteko) honako hauek ezartzen ditu lehenengo kapituluan: batetik, funtzionamenduaren eta herritarrekiko interakzioaren printzipioak, eta, bestetik, Euskal Administrazio Publikoarekiko harremanetan herritarrek dauzkaten eskubide eta betebeharrak. Bigarren kapituluak politika publikoen plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa arautzen ditu. Azkenik, hirugarren kapituluak administrazio elektronikoa eta herritarrentzako arreta lantzen ditu.

7. IV. tituluak (Euskal Administrazio Publikoaren gardentasuna) Gardentasunari, informazio publikora iristeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen funtsezko edukia garatzen du, gure autonomia-erkidegoaren esparruan.



8. V. tituluak (Herritarren parte-hartzea eta parte hartzeko prozesuak) parte hartzeko prozesu orok bete beharreko oinarrizko baldintzak eta bermeak ezartzen ditu. Horrez gain, herritarrek erregelamendu-ekimenak sustatzeko duten eskubidea arautzen du, lehen aldiz. EAPLako 119. artikulua Legegintzarako Herri Arioari buruzko ekainaren 26ko 8/1986 Legean ezarritako eskemari jarraitzen dio; izan ere, herritarren eskaerak bere jardueretara gehitzeko aukera ematen dio Eusko Jaurlaritzari, baldin eta jarduera horietara gehitzea merezi badute, babes zabala edukitzeagatik eta egokiak izateagatik.

9. Azkenik, lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa da organo burujabe eta eskuduna Gardentasunari, informazio publikora iristeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeko 24. artikuluan ezarritako erreklamazioak ebazteko, informazio publikora iristeko eskubideaz baliatzeari buruzko ebazpen-kasuei dagokienez; bigarren xedapen gehigarriak IV. tituluko aginduen aplikazioa EAeko toki-erakundeetara zabaltzen du; hirugarren xedapen gehigarriak legea EAeko erakunde erkideetan soilik aplikatuko dela azaltzen du, ezarrita dauden salbuespenetan izan ezik; xedapen indargabetzaileak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuko III. titulu eta xedapen gehigarri bakarra indargabetzen ditu; eta azken xedapenak ezartzen du legea 2014ko abenduaren 1ean sartuko dela indarrean.

III. GOGOETA JURIDIKOAK

A. Oinarrizko gaiak.

a. LEA, administrazio independentea.

10. Lehiaren agintaritzen **funtzioen** barruan sartzen da lehia-baldintzak defendatzea eta sustatzea merkatuetan, bai enpresekiko harremanetan, bai administrazio publikoekiko harremanetan.



Izan ere, lehia **sustatzeko** lanetan, administrazioaren legegintza-funtzioak aztertu ohi dira askotan, bai eta merkatuetako eragile ekonomiko gisa duen zeregina ere.

Gero eta ohikoagoak dira administrazioak arau-hausle gisa dituzten **zehapen-prozedurak**.

Betiko funtzio horiez gain, Lehia Defendatzeko 15/2007 Legeak jasotzen du lehiaren agintaritzek eskumena dutela lege-maila baino maila baxuagoa duten **arau juridikoak** eta **ekintza administratiboak inpugnatzeko**.

Hori guztia dela eta, behar-beharrezkoa da, lehiaren agintaritzak juridikoki diseinatzean, haien independentzia ahalik eta gehien bermatzen duten tresnak erabiltzea.

11. Behar horren jakitun izanik, 2012an **Lehiaren Euskal Agintaritza** sortu zuen legeak indartu egin zuen aurretik lehiaren defentsarako zegoen euskal sistema, Lehiaren Euskal Agintaritzaren independentzia funtzionala eta organikoa bermatzen dituen lege baten bidez.

Lege horrek LEAren Kontseiluko kontseilukideak, lehendakaria eta ikerketazuzendaria izendatzeko araubide bat eta haiek kargutik kentzeko arrazoiak jasotzen ditu. Independentzia-printzipio horren adierazle da hori.

Kargurako izendapenak 6 urtez irauten du, bermatzeko ez dutela denboran bat egiten legegintzaldi bakoitzeko izendapenekin.

Legean bertan ezarrita dago haien egoera administratiboa: zerbitzu berezien araubidea dute. Hori dela eta, eskumeneko alorretan ospea duten profesionalak bete ditzakete kargu horiek, eta profesional horiek bermatuta dute aurretiko lanbide-loturari eutsiko diotela, behin dagokien agintaldia amaitutakoan. Egoera hori lagungarria da erabakiak modu independentean hartuko dituztela bermatzeko.

Gainera, bateraezintasunen araubide espezifiko bat dute, izendatuak diren aurreko bi urteetatik hasi eta kargua utzi ondorengo bi urteetara arte irauten duena, independentzia hori areagotzeko.



LEA administrazio independentetzat hartzen denez, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legeko seigarren xedapen gehigarriak ezartzen du arauen berregituraketatik kanpo geratuko dela¹. Hori dela eta, eta LEAk Eusko Jaurlaritzarekiko modu independentean funtzionatuko duela bermatzeko, berariaz baztertu beharko litzateke hura arau bidez berregituratzeko aukera (Jaurlaritzak baitu erregelamenduak egiteko ahala).

12. Hori bera adierazi zuen Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, LEAren espezifikotasuna azpimarratuz, LEA sortzen duen legeari buruzko 50/2011 irizpenean. Izan ere, adierazi zuen LEA ez dela "ohiko" erakunde autonomo bat, baizik eta administrazio independenteen kategorian sartzen den erakunde bat²:

60.-Aurreproiektuak Lehiaren Euskal Agintaritzak nola taxutu duen ikusita, lasai esan dezakegu aztertzen ari garen **erakundeak ondo betetzen dituela administrazio independenteentzako ezarritako baldintzak**; izan ere: i) **autonomia organiko eta funtzionalez** jantzita jardungo du (1.2 artikulua), eta herri-administrazioekiko eta agente ekonomikoekiko **independentzia osoz** egikarituko ditu bere eginkizunak (1.4 artikulua); ii) ardura duen sailak erakundearen jarraibideak ezartzen baino ez du parte hartuko, eta lehia sustatzeko jardueraren efikazia eta eraginkortasuna kontrolatuko ditu; iii) Ikerketa Zuzendaritzaren egintzen aurka, defentsa-gabezia edo galera konponezina sortzen badute, errekurtsioa jartzeko modua egongo da Lehiaren Euskal Kontseiluaren aurrean, eta ez organismoa atxiki zaion sailaren aurrean (4.3 artikulua), lehendakaritzaren edo Kontseiluaren egintzen aurka, aldiz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurreko errekurtsioa baino ezin da jarri, egintza horiek amaiera ematen diotelako administrazio-bideari (4.4 artikulua); iv) **sei urterako** izendatzen dituzte lehendakaria, bokalak eta ikerketa-zuzendaria (7.1, 9.3 eta 12.2 artikulua), eta legean bertan (7.6, 9.3 eta 12.2 artikuluetan) aurreikusitako kasuetan baino ezin dira kargutik kendu; v) lehendakaria eta ikerketa-zuzendaria **goi-kargudunak dira, eta kargu horien bateraezintasun-araubidea dute** (7.3 eta 12.2 artikulua); vi) **berariazko bateraezintasun-araubidea**

¹ Seigarrena.- Arauen berregituraketatik kanpo geratzea.

Lehiaren Euskal Agintaritzak ez du bete beharko Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean -azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretu bidez onartu zen- 13. artikuluan aurreikusten dena.

² Gauza bera esan zuen, bere garaian, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak, 2012ko ekainaren 4ko txostenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoari buruzko Lege Aurreproiektuaren haritik:

http://www.competencia.euskadi.net/contenidos/informacion/informes/es_informes/adjuntos/INF_ORME%20ANTEPROYECTO%20LEY%20SECTOR%20PUBLICO%20CAPV.pdf



ezarri da, izendatu aurreko urte biak eta kargua utzi osteko beste biak hartzen dituena (7.3, 7.4 eta 12.2 artikulua); eta vii) **bokal izatea bateraezina da** bokalaren independentzia arriskuan jar dezakeen **beste edozein jarduerarekin**, eta bokalek ere badute berariazko bateraezintasun-araubide bat, izendatu aurreko urte biak eta kargua utzi osteko beste biak hartzen dituena (9.4 eta 9.5 artikulua).

61.- EONALen 7.3.a) artikulua aurreikusitako erakunde autonomo gisa eratzeko erabakia ere ez da oztopo administrazio independentetzat jotzeko. Gehienetan formula instituzional hori tresna huts gisa erabiltzen da atxikita dagoen administrazioaren goi zuzendaritzaren menpe, baina **ez da legezko oztoporik batere ikusten formula horretara jo, eta eginkizunik gehienak administrazioarekiko independentzia osoz garatuko dituen organismoa eratzeko**. Horrek, gainera, gure erakunde-sistemaren goiburu-legeak aurrekusi duen eskemari eustea esan nahi du, sistema horren koherentziaren mesedetan betiere.

b. LEAk Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari epaiketa aurreko arazoak aurkeztu ahal izatea

13. Europar Batasuneko estatu kideen Lehiaren Zuzenbidea zuzenean txertatuta dago Batasuneko zenbait arautan (liberalizazioarenetan, garraioarenetan, kontratuenetan...). Askotan, ez da erraza izaten aipatutako arauak zehatz-mehatz interpretatzea, eta, horregatik, Batasuneko Zuzenbideak epaiketa aurreko arazoaren bidea erabiltzeko aukera ematen die arauak aplikatzeaz arduratzen diren "agintaritzak juridikzionalak". Mekanismo horren bidez, zenbait agintaritzak nazionalak zuzenean jar dezakete errekurtoa Europar Batasuneko Justizia Auzitegian, instantzia juridikzional goren horrek erabaki dezan zein den araudiaren interpretazio zuzena.

Justizia Auzitegiak berak hainbat ebazpenetan zehaztu du mekanismo horretara jotzeko erabiltzen den "agintaritzak juridikzionalak"aren kontzeptua. Guztien artetik, bat aipatuko dugu, berriena izategatik: Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Autoa (Zortzigarren Sala), 2014ko otsailaren 13koa, C-555/13 gaiari dagokiona. Autoaren 16. paragrafoan, Auzitegiak ezartzen du zer baldintza bete behar dituen erakunde batek, kontzeptu horren barruan sartu ahal izateko.

"Alde horretatik, gogorarazi behar da, Justizia Auzitegiak behin eta berriz osatu duen jurisprudentziaren arabera, jakin nahi badugu ea erakunde igoerleak «erakunde



jurisdikzional»aren izaera duen Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 267. artikuluan ezarritakoari jarraituz (gai hori Batasunaren Zuzenbidearen alorrean soilik agertzen da), Justizia Auzitegiak zenbait elementu hartu beharko ditu kontuan; adibidez, **erakundearen jatorri legala**, haren iraunkortasuna, haren jurisdikzioaren nahitaezko izaera, prozeduraren izaera egiaztatzailea eta erakundeak arau juridikoak aplikatzea, bai eta erakundea **independentea** izatea ere (ikus 2013ko urtarrilaren 31ko epaia, Belov, C-394/11, 38. atala eta aipatutako jurisprudenzia).”

14. Lehia defendatzen duen euskal erakundeari Europar Batasuneko Justizia Auzitegira jotzeko ate hori ez ixteko, eta aukera izan dezan Europar Batasuneko araudiaren interpretazio egokia lortu ahal izateko, beste instantzia batzuetako gaietan antzeko zalantzak sortu arte itxaron behar izan gabe, behar-beharrezkoak dira honako hauek:

- Erakundearen jatorri legalari eustea.
- Erakundearen izaera iraunkorrari eustea.
- Erakundearen nahitaezko izaerari eustea.
- Prozeduraren izaera egiaztatzailea bermatzea eta erakundeak arau juridikoak aplikatzen dituela bermatzea.
- Independentzia-araubideari eustea.

Beste edozein soluziok ahuldu egingo luke lehia defendatzeko euskal erakundea, eta desabantaila-egoeran jarriko luke Estatuko erakundearekin (CNMC) alderatuz gero. Horrek atzerapauso bat ekarriko luke Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Lege berriak egindako lorpenetan.

B. Aurreproiektuko artikuluko zehatzei eginiko erreferentziak

a. LEA eta erakunde autonomoak

15. LEAk bere funtzioak modu independente eta eraginkorrean gauzatu ahal izateko, uste dugu lege berriak ere babestu beharko lukeela 1/2012 Legeak sortutako araubide berezia.

Horregatik, ez litzaizkioke lehiaren agintaritzza bati aplikatu beharko aztertzen ari garen aurreproiektuaren idazketako agindu hauek:



- 8. artikulua (Goi-karguak eta zuzendaritza-organoak).
- 36. artikulua (Erakundeak eratzeko prozedura orokorra).
- 37. artikulua (Organismo autonomoak).
- 48. artikulua (Berregituratzea).
- 50. artikulua (Azkentzea).
- 54. artikulua (Gobernu-organoetako ordezkartza).
- 60. artikulua (Erakundeetako zuzendaritza-karguak).

b. Errekurtsoen araubidea

16. LEA sortu zuen lege bereziak ezartzen du Agintaritza horrek errekurtsoen araubide berezi bat duela, Lehia Defendatzeko 15/2007 Legea egokitua.

53. artikulua (egintzak eta errekurtsoak) ez dator bat Lege berezian ezarritako errekurtso-araubidearekin, eta, beraz, artikulua hori ere ezin zaio lehiaren agintaritza bati aplikatu.

c. Lankidetzaren hitzarmenak

17. EAPLAK honako hau ezartzen du 28. artikuluan: "Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak lankidetzaren hitzarmenak sinatu ahal izango ditu gainerako administrazio publikoekin, nork bere eskumen-esparruan jokatuz. Hala ere, Jaurlaritzaren Kontseiluak baimendu edo onartu beharko ditu, Jaurlaritzaren Legean ezarritakoaren arabera".

18. Artikulu horrek ez du jasotzen administrazio instituzionaleko erakundeek beren artean hitzarmenak sinatzeko ahalmenik dutenik, eta, beraz, LEA honetatik adierazi da komeni dela erakunde autonomoei beste erakunde autonomo batzuekin edo beste erakunde instituzional batzuekin lankidetzaren hitzarmenak sinatzeko aukera ematea.

Horretarako, 28. artikulua honela idaztea gomendatzen dugu:

"Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta **Instituzionalak** lankidetzaren hitzarmenak sinatu ahal izango ditu gainerako administrazio publikoekin, nork bere



eskumen-esparruan jokatzuz. Hala ere, Jaurlaritzaren Kontseiluak baimendu edo onartu beharko ditu, Jaurlaritzaren Legean ezarritakoaren arabera".

19. Nolanahi ere, aukera hori jasota dago jada LEAren lege berezian.

d. Lehiaren memoriak.

20. 64. artikulua ("Lege-proiektu, plan estrategiko eta jarduera esanguratsuen eraginaren aurretiazko ebaluazioa, eta esku-hartze publikoen beste ebaluazioak") honako hau ezartzen du: "Eraginari buruzko aurretiazko ebaluazioa egingo zaie Gobernu Planeko lege-proiektu eta plan estrategiko guztiei, bai eta Gobernu Planean hala zehaztuta duten jarduera esanguratsu guztiei ere". Honela jarraitzen du: "Aurreko paragrafoan adierazitako nahitaezko ebaluazioak egiteaz gain, Eusko Jaurlaritzak, urtero, ebaluatu beharko diren esku-hartze publikoen zerrenda bat ezarriko du. Probabilitate, garrantzi edo hedapen handieneko eraginak izan ditzaketen esku-hartzeak, ziurgabetasun handiena ekar dezaketen eraginak izan ditzaketen esku-hartzeak eta arazo garrantzitsuenei aurre egiten dieten esku-hartzeak ebaluatuko dira, gutxienez". Artikulua amaitzeko, honako hau gehitzen du: "Gainontzeko administrazio-jarduerari dagokionez, euskal sektore publikoko sailek edo erakundeek beraiek ebaluatu ahal izango dituzte beren eskumenekoak diren eta ebaluatu beharrekotzat jotzen dituzten esku-hartze publikoak, betiere ez baldin badago erabakiak hartzeko orduan oinarri gisa har dezaketen aurretiazko ebaluaziorik edo daturik".

21. Alde horretatik, LEAk egoki ikusten du eraginaren aurretiazko ebaluazio bat egotea, baina eskatzen du honako hau ere gehitzeko EAPLAN: beharrezkoa dela arauketak lehiari duen eragina gehitzea aipatutako memorian. Hau da, arau- edo erregulazio-proiektuak lehiaren ikuspegitik aztertu eta baloratu behar direla.

Izan ere, arau edo erregulazio berri bat onartzeak eraginak izan ditzake lehia askeak merkatuetan duen funtzionamenduan. Eragin horiek negatiboak badira, lehia, enpresaren askatasuna eta kontsumitzailearen ongizatea kaltetu ditzakete. Hori dela eta, beharrezkoa da, arau edo erregulazio berri baten



proiektua egitean, hasiera-hasieratik aztertzea ea eragin negatiboak izan ditzakeen lehian, arauaren helburuek justifikatzen ez dituztenak, edota ea eragin horiek arindu egin daitezkeen beste erregulazio-aukeraren bat erabiliz.

Lehiaren memoria ez da mugatu behar maila handieneko arauetara, hala nola legeetara edo dekretuetara; aitzitik, maila baxuagoko arauetan ere aplikatu behar da. Izan ere, askotan, lehiari ezartzen zaizkion murrizketak ez dira oinarritzko testuetan egoten, haien garapeneko edo aplikazioko arauetan baizik.

22. Horregatik, LEAk proposatzen du bi artikuluko berri gehitzea III. tituluko bigarren kapituluko lehenengo atalean. Hauek izango lirateke artikulukoak:

XX. artikulua- Lege-proiektuen eta erregelamendu-proiektuen lehiaren memoriak.

Lege- edo erregelamendu-maila duten arauak proposatzen dituzten organoek lehiaren memoria bat gehituko dute, argi uzteko arau-proiektuak ez duela modu bidegabe eta neurrigabeen murrizten lehia merkatuetan.

XX. artikulua- Lege-proiektuen eta erregelamendu-proiektuen lehiaren memoriak egiteko prozedura.

Lege-proiektuen eta erregelamendu-proiektuen lehiaren memoriak egiteko prozedurak honako jarduera hauek hartzen ditu barnean:

a) Aurreikusitako arauak lehiaren gainean izan ditzakeen eragin negatiboak identifikatzea. Proiektu horretan ez bada identifikatzen lehian eragin dezakeen arazorik, lehiaren memorian justifikatu beharko da zergatik ondorioztatu den hori, prozedura amaitutzat eman baino lehen.

Proiektuak lehia murrizten duten aginduak edo mekanismoak baldin baditu, berriz, azterketa-prozedurak aurrera egin beharko du, honako urrats hauekin:

b) Identifikatutako lehia-murrizketak justifikatzea. Asmoa da aztertzea zer helburu lortu nahi den erregulazioarekin, ikusteko ea lehian eragiten duten murrizketak beharrezkoak diren helburu hori lortzeko, eta ea proportzionalak diren.

Ezin bada justifikatu sartu nahi den lehia-murrizketa, proiektua aldatu egin beharko da, eragin hori ezabatzeko.

Murrizketa beharrezkoa eta proportzionala dela justifikatzen bada, berriz, pentsatu beharko da ea modu egokian antolatuta dagoen eta ea badagoen lehia gutxiago murrizten duen beste erregulazio-aukerarik. Behar-beharrezkoa da lan hori egitea, eta hurrengo urratsean lantzen da.

c) Beste erregulazio-aukera batzuk aztertzea. Helburua da egiaztatzea ez dagoela lehia murriztu gabe edo behintzat lehia horrenbeste murriztu gabe helburu bera lortzeko beste mekanismorik.



Lehia gutxiago murrizten duen beste erregulazio-aukeraren bat aurkitzen bada, hori ezarri beharko da.

IV. ONDORIOAK

Lehenengoa.- LEAren iritziz, aurreproiektuak berariaz egin beharko lieke erreferentzia administrazio independenteei (hor sartzen da Lehiaren Agintaritza), ez daitezen murriztu Eusko Legebiltzarrak 1/2012 Legean LEAri berretsi dizkion funtzioak erabiltzeko aukerak, eta dagoeneko lege berezian jaso diren independentzia-beharrak jaso daitezen arau orokor honetan ere.

Bigarrena.- LEAren ustez, erakunde autonomoei hitzarmenak sinatzeko ahalmena ematea komeni da.

Hirugarrena.- LEAk uste du beharrezkoa dela honako hau gehitzea arauaren eraginaren memorian: arauak lehian duen eraginaren azterketa.

Bilbon, 2014ko maiatzaren 22an

LEHENDAKARIA

**MARÍA PILAR CANEDO
ARRILLAGA**

IDAZKARIA

IBON ALVAREZ CASADO

KONTSEILUKIDEA

NATIVIDAD GOÑI URRIZA

KONTSEILUKIDEA

RAFAEL ITURRIAGA NIEVA